

IRUÑEKO ADINEKOEN UDAL KONTSEILUAREN BERARIAZKO ERREGELAMENDUAREN HASIERAKO ONESPENA

Iruñeko Udaleko **UDALBATZAK, bi mila eta hogeita hiruko APIRILAREN BOSTEAN**, honako erabakia hartu zuen:

PLE 05-ABR-23 (7/ KA)

«IKUSIRIK espedientean dauden txosten eta agiriak, ERABAKITZEN DA:

1.- Hasiera batez onestea Iruñeko Adinekoen Udal Kontseiluaren berariazko Erregelamendua. (Testua eranskin gisa atxiki da).

2.- 30 eguneko epea ireki dadin agintzea informazioa publiko egin eta interesdunei entzunaldia emateko, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean, iragarki-taulan eta udalaren webgunean argitaratzen denetik aitzina.»

Espedientea ikusgai dago Komunitate Ekintzako, Garapenaren aldeko Lankidetzako eta Kiroleko Alorrean, (Zapateria k. 40, 3. solairuan). Telefonoa: 948420510.

Hori guztia argitara ematen da jende orok jakin dezan.

Iruñean, bi mila eta hogeita hiruko apirilaren hamaikan. ENRIQUE MAYA MIRANDA alkatea